



OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINONTZEKO EKIPAMENDU ETA MATERIALEZ BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUA EDO BEREZIA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Hasierako onarpena: Udalbatzak 2018/05/28an

OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINONTZEKO EKIPAMENDU ETA MATERIALEZ BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATUA EDO BEREZIA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

ORDENANTZAREN HELBURUEN AZALPEN OROKORRA ETA HELBURUA

Ordenantza honen helburua da Bergarako eremu publikoan edo erabilera publikoa duten eremuetan izaera pribatua duten zenbait okupazio arautzea; hain zuzen ere, eremu horien erabilera publikoa kaltetua izan ez dadin, lurzoru publikoak, eta erabilera publikoa duten eremu pribatuak ere, legez ezarrita duten erregimen juridikoa errespetatzea eta erabilera pribatuarekin bateragarri diren heinean okupazio hori arautzea.

Illo horretan, honen bidez, Bergarako udalerrian obrak burutzean, edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainerako ekipamendu eta materialak jarriz udal lurzoru publikoaren erabilera eta okupazioa arautzeari ekiten zaio.

Ordenantza hau erabilera publikokoak diren udalerriko toki guztietarako aplika daiteke (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.), titularitate publikokoak zein erabilera publikoa duten eremu pribatukoak izan.

1. Artikulua: Helburua

Ordenantza honek arautzen du udalerrian obrak burutzean egiten den bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia (okupazioa), bertan jartzen direnean edukiontziak, hesi babestaileak, aldamioak, garabi-kamioia, masa-siloak edo gainontzeko elementuak; eta horretaz gain, okupatutako gunek publikoa garbitzeko, babesteko eta konpontzeko neurriak ere arautzen ditu.

OBRAK BURUTZEAN EDUKIONTZI, HESI BABESTAILE, ALDAMIO ETA GAINERAKO EKIPO ETA MATERIALEZ BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA

2. Artikulua: Obra-itxitura.

Obraren elementu eta tresna guztiak itxitura perimetral baten barruan egon beharko dira. Itxitura hori egur trinkozkoa edo metalikoa izango da, eta gutxienez 2 metroko altuerakoa; horrenbestez, oinezkoen pasabidea desbideratu egingo da alboko pasabide batera, gutxienez 1,50 m zabal izango dena, eta betiere galtzada inbaditu gabe. Edonola ere, adierazitako bete ezinezko kasuetan, oinezkoen joan-etorria bermatu egin beharko da, udal zerbitzu teknikoek dagokion txostena egin ondoren.

3. Artikulua: Obra-aldamioa.

Bergarako Udalak aurreko puntuko obra-itxitura jartzerik ez dagoela erabakiko balu, obra-aldamioaren instalazioa baimendu ahal izango du ordenantza honetan jasotako zehaztapenei jarraituz.

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

Horrenbestez, obra-aldamioa instalatzea erabakiz gero, eta oinezkoak alboko pasagune batetik pasaraztea ezinezkoa denean, oinezkoen pasabidea aldamio azpitik egingo da, honako dimentsio libreak izango dituen korridore bat sortuz: gutxienez 1,50 m-ko zabalera eta 2,20 m-ko altuera. Salbuespen gisa, eta beharrezko baimena lortuz gero, zabalera txikiagoko pasabideak jarri ahal izango dira, baina inoiz ere ez 1,10 metrotik beherakoak, salbu eta espaloia-aren zabalera hori baino estuagoa bada; azken kasu honetan, espalo- zabalera osoa gordeko da oinezkoen pasabiderako. Bi barra jarriko dira lurretik 0,45-0,50 m-ra eta 0,90-1,00 m-ra, aldamioaren kanpoko hankak luzeran lotzeko, salbu eta oinezkoen pasabidearen albo honetan trafikotik bereizteko hormatxo baldin badago. Barra hauek seinaleztatuta egongo dira, 20 cm-ko luzerako zerrenda islatzaileen bidez, aldamioen koloreekin kontrastea egiten duten koloreak erabilita (Irudiak 1.a eta 1.b – Ikus irudiak ordenantza honetako 1. eranskinean).

Aldamioaren eta fatxadaren arteko tartea 0,60 metrotik beherakoa bada, oinezkoak aldamio azpiko erdialdetik pasatzera bultzatuko da, aldamioen hasieran eta bukaeran bi barra jarrita, aldamioaren hanka fatxadari lotzeko. Barra horiek nahitaez eraman beharko dituzte lehen aipatutako 20 cm-ko zerrenda islatzaileak (Irudiak 2a, 2b eta 2c).

Espaloia-aren zintarria oinezkoen pasabidearen barruan geldituz gero, plataforma irristagaitz bat jarriko da espaloia-aren altuera berean desnibela kentzeko, eta hori egiterakoan kontuan hartu beharko da areketako ura husteko beharra. (Irudiak: 1b edo 2b). Galtzada inbaditu beharreko kasuetan, instalazio horrek honako betekizunak bete beharko ditu:

Bide publikoan jarritako elementu guztiek (itxiturak, aldamioak, zama-jasogailuak, etab.) dagokien seinaleztapena izan beharko dute, bai gauez, bai egunez.

Bai aldamioetan bai obra-itxituretan, kartelak jarriko dira ikusteko moduan, euskaraz eta gaztelaniaz, honako hauek adierazten: «*Kontuz, lanak / Peligro obras*», «*Ez gelditu hesi edo aldamioaren ondoan / No se detengan junto a la valla o andamio*», «*Ez jarri kartelik / Prohibido fijar carteles*».

Gaueko argiztapenerako, argi gorriak jarriko dira obra-itxituraren edo aldamioaren kanpoko hanken muturretan, eta baita tartean ere, gehienez 6 metroko distantzia utzita, eta lurretik 3 metrora kokatuta. Markesinarik egonez gero, argiak haien gailurrean ere jarriko dira. Batzuetan oinezkoek aldamio azpiko pasabidearen albo batetik atera behar izaten dute galtzadako oinezkoentzako pasabide batera, autobus geraldura batera, etab. joateko. Horrelakoetan, irtenbide horietan, ezin izango da aldamio-ko elementurik jarri kanpora aterata edo esekita 2,20 metrotik beherako altueran. Altuerari buruzko arau hori aldamioaren gainontzeko zatian ere bete behar da honelako elementuei dagokienez: habe paraleloak, hegalkinak estaltzeko lagungarriak, plataformak zabaltzeko elementuak, etab. Inolaz ere ezingo dira oztopatu edo itxi atarrietako eta merkataritza-lokaletako pasaguneak edo sarbideak.

Merkataritzako erakusleho eta bitrinak errespetatu egingo dira, ahalik eta gehien ikusgai utzita. Edozein kasutan ere, bide publikoaren okupazioari buruz artikulua honetan aipatutako inguruabar guztietarako aurrez Udaltzaingoaren oniritzia beharko da.

4. Artikulua: Bide publikoan materialak jaso eta jaisteko sistemak jartzea.

Estalkietatik, terrazetatik edo barneko solairuetatik ateratako materialak jaso edo jaisteko bide publikoan jarri beharreko aparatuak ezartzeko behar diren lan guztiak arautzen dira artikulua honetan.

Ziurtatu beharko da materiala igo zein jaisteko orduan ezinezkoa dela edozein material erortzea ibilgailuak edo oinezkoak dabiltzan aldera. Ildo horretan, sistema jasotzaileak obra-itxitura baten

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

barruan jarri beharko dira, eta itxiturak aurreko artikuluan zehaztutako baldintzak bete beharko ditu.

5. Artikulua: Garabi-kamioia.

Garabi-kamioia obra-itxituraren barruan jarri instalatu beharko da. Salbuespen gisa, bestela ezinezkoa balitz, Udaltzaingoarekin adostuta jarri ahal izango litzateke.

6. Artikulua: Bide publikoan ibilgailu bat jartzea.

Obra-material ezberdinen hornikuntzarako ibilgailu bat erabili ahal izango da, eta bertatik materialak obrara garraiatu. Era berean erabili ahal izango da ibilgailu hori obra-hondakinak erretiratzeko ere.

Azken kasu honetan, ordenantza honetan obra-dukiontzientzat jasotako zehaztapenak aplikatuko dira.

7. Artikulua: Bide publikoan dukiontzia jartzea.

Dukiontzia bide publikoan jartzeko, arau hauek bete beharko dira:

A. Aparkalekuak.

Dukiontzia aparkatzeko guneetan jartzeko orduan, honako lehentasunak errespetatu beharko dira:

1. Obra dagoen aldeko espaloiko aparkatokia jarriko dira.
2. Zeharkako kale hurbilenetako bateko aparkatokia.
3. Aurreko bi puntuetan azaldutako aldeetan aparkatzeko tokirik egon ezean, obra aurreko espaloiko aparkatokia jarriko dira.
4. Dukiontzia perimetroaren proiektzioak ezin izango ditu, inolaz ere, oinezkoen pasabideak edo espaloiak inbaditu. (Irudia: 3a)

B. Espaloiak.

Dukiontzia espaloian jarriko dira honako kasu hauetan:

1. Aurreko atalean aipatutako aparkaleku-gunerik ez dagoenean
2. Aparkaleku-gunea egonda ere, bertan dukiontzia jartzeak ibilgailuen zirkulazioari traba handiak sortuko dizkiola uste bada.
3. Kasu guztietan, oinezkoentzat 2,50 metroko tarte librea gelditu beharko da, dukiontzia goiko ertza erreferentziaz hartuta (Irudia: 3b).
4. Espaloietan jarritako dukiontzia guztiek Udalak berariaz emandako baimena izan beharko dute, Udaltzaingoaren eskura.

C. Gune bereziak.

BERGARAKO UDALA

Obra burutzean dukiontzia, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

Edukiontzia gune berezietan jarri ahal izateko –plazak, oinezkoen guneak, alde zaharra, etab.–, Udal Zerbitzu Teknikoek kasu bakoitzerako agintzen dutena bete beharko da.

Ezingo da egin inolako material-pilaketarik zuzenean gune publikoaren gainean.

8. Artikulua: Bide publikoan masa-siloak jartzea.

Masa-siloak obra-itxitura baten barruan jarri beharko dira, eta itxiturak bete egin beharko ditu ordenantza honetan horri buruz ezarritako betekizunak.

9. Artikulua: Berdeguneak eta zuhaitziak babestea.

Instalazio zein edukiontzia jarri baino lehen, beharrezko neurriak hartu beharko dira zuhaitzei eta berdeguneetako bestelako osagarriei inolako kalterik ez egiteko.

Kasu partikularretarako har daitezkeen neurri bereziak aparte utzita, berdegune edo zuhaitziren bat kalterik jasateko arriskuan dagoenean honako arauak hartuko dira kontuan:

A) Ezinbesteko kasuetan ez bada (eta halakoetan ere udal zerbitzuen baimena beharko da), ezin izango da egon inolako berdegunerik, landararik edo altzaririk obra-esparruaren barruan, itxiturak, aldamiok edo osagarritzko instalazioek inguratzen duten horretan.

Era berean, edukiontzia ezin izango dira jarri ez berdeguneetan ez zuhaitzen adaburuen proiektzioak hartzen duen esparruan.

Berariazko baimenik izan ezean, hesi, aldami zein edukiontziekin zerikusia duen edozein elementu ezin izango du ukitu zuhaitzik, horien txorkorik, berdeguneetako landare- edo ekipamendu-elementurik.

Berdeguneetako landare- edo ekipamendu-elementuak zein elementu apaingarriak ezin izango dira erabili lanen edo instalazioen tresna osagarri gisa (adibidez, euskarri, itxitura edo biltegi gisa).

Soropiletan, landaketetan, zuhaitzen inguruetan edo horien txorkoetan ez eta berdeguneetako ekipamendu-elementu zein apaingarrietan ere, ezin izango da bota ez hondakin-likidorik ez likido kaltegarriak, ez eta obra-materialik, hondakinik, lanabesik edo edonolako tresnarik utzi ere, ezta aldi baterako izanda ere.

Oro har, berdeguneak ezin izango dira erabili haien inguruan egiten diren obrei edo jartzen diren instalazioei dagozkien materialak, ibilgailuak edo jarduerak kokatzeko.

B) Instalazioak zein edukiontzia jarri baino lehen, obren eraginpeko ingurutik edo obrako ibilgailuak ibiltzen diren zein makineria kokatzen den tokitik 2 metro baino gutxiagora dauden landare eta altzari guztiak babestu egin beharko dira, udal teknikariek emandako jarraibideen arabera.

Lanen eraginpeko inguruaren barruan zuhaitzik egonez gero (ibilgailu eta makinen zirkulazio eta aparkaleku guneak, materiala gordetzeko guneak eta abar barne), 2,5 metrotik gorako hesi babesgarri bat jarriko da, zuhaitzen adaburuen proiektzioari jarraiki.

Babesgarriak enborra baino estaltzen ez badu, enborraren inguruan jarriko da, azala ukitu gabe, zauririk ez eragiteko.

Lanak amaituta, babesgarriak kenduko dira.

C) Obrak egiteko nahiz instalazioak jarri ahal izateko, zuhaitz, landare edo berdeguneetako ekipamenduak zuzenean eragingo dion zerbait egin behar bada, eskatzaileak eskaera-orrian zehaztu egin beharko ditu horren xehetasun guztiak, eta jarduketa horiek ere udal baimena

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldami eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

beharko dute, aurrez eskumeneko udal zerbitzuen txostena eman ondoren. Baimen horretan ezarritako baldintzetatik erator daitezkeen gastuak eskatzailearen kontura izango dira.

Zuhaitzei eragindako kalteengatiko ordainak kalkulatzeko, «Granadako Araua» izeneko metodoa erabiliko da, zuhaitz apaingarriak baloratzekoa (Herri Parke eta Lorategietako Espainiako Elkarte, 1990).

10. Artikulua: Muntatze- eta desmuntatze-gunea mugatzea.

Instalazioak jarri eta kendu bitartean, eraginpeko gunea ongi mugatu beharko da oinezkoen pasabide-gunearekiko, oinezkoen gainean ezer eror ez dadin (4. irudia).

11. Artikulua: Gune publikoaren garbiketa.

Obrek irauten duten denboraldian, obraren inguru guztia garbi-garbi mantendu beharko da (garbiketa egunero egingo da, lan-jardunaren bukaeran), eta obraren gune mugatu eta itxiaz kanpo ez da onartuko inolako material, hondakin edo obra-makineriarik egotea.

Hauts edo zarategatik eragozpenak sor ditzakeen lan bat egiten ari denean, dagozkion neurriak hartuko dira eragozpenok ahalik eta gehien murrizteko bizilagun, oinezko edo bertatik dabiltzan ibilgailuenganako.

Obratik gertuko bizilagun, oinezko edo ibilgailuei kalterik edo zikinkeriarik eraginez gero, lehenbailehen konpondu beharko da.

Lur-mugimenduak egonez gero, kamioien gurpilak garbitu egin beharko dira, gurpiletan itsatsitako lokatza galtzadara eraman ez dezaten.

12. Artikulua: Hizkuntza-irizpideak.

Errotuluak, kartelak edo informazio publikoak euskaraz jarriko dira piktogramekin batera, piktogramaren bidez mezua ulertzen bada. Gainontzeko kasuetan, ele bietan jarriko dira (euskaraz eta gaztelaniaz) euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik eta bai neurriaren aldetik ere. Halaber, euskarazko testuen egokitasuna zaindu beharko da eta horretarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango da.

13. Artikulua: Okupatutako espazio publikoa konpontzea.

Behin obrak amaituta eta behin-behineko instalazioak kenduta, horien arduradunek okupatutako gune publikoa lanak hasi aurretik zegoen bezala utzi beharko dute, eta beharko balitz, eragindako elementuak berrezarri jarri beharko dituzte, hondatutakoak konpondu eta lanek eragindako bestelako ondorioak leundu. Horretarako epe bat emango zaie eta udal teknikariek gainbegiratuta egin beharko da.

Kasu batzuetan, osagai batzuk obrek dirauen bitartean edo behin-behineko instalazioak kendu aurretik konpontzera behartuta egongo da arduraduna.

Horrek ez du esan nahi diziplina-neurriak eta kalte-ordain egokiak ezarriko ez direnik.

14. Artikulua: Ordenantza honen interpretazioa.

BERGARAKO UDALA

Obra burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamiu eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

Udalaren jardunak eta erabakiak inpugnatzea bidezkoa den kasuen kaltetan izan gabe, toki-administrazioari dagokionez indarrean dagoen legeriak ezarritako prozedurari jarraituz, ordenantza honi buruzko erreklamazioak, zalantzak eta interpelazioak, kasuak kasu, eskumena duen administrazio publikoaren organismoak erabakiko ditu administratiboki.

BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA EGITEKO BAIMENA ESKATZEA ETA IZAPIDETZEA

15. Artikulua: Eskaria eta onarpen-prozedura.

Titulu honetan aurreikusitako kasuetan bide publikoa okupatzeko, baimen-eskatzaileak eskari-eredu normalizatua bete beharko du –Bergarako Udalak horretarako duena–, eta horrekin batera 1:200 eskalako plano bat aurkeztuko du, non zehaztu egin beharko duen zer nolako okupazioa egin nahi duen eta zenbaterainoko epean. Edonola ere, eskaera beti egin beharko da okupazioa egin aurretik.

Eskatutako okupazioari buruz Udaltzaingoak eta udal teknikariak txostena egingo dute eta horren ondoren erabakiko da, betiere behin obrarako udal baimenaren emate-erabakia hartu denean.

16. Artikulua: Baimena luzatzeko eskaera.

Obrak egiteko bide publikoaren okupaziorako baimendutako epealdia nahikoa ez balitz, eskatzaileak eskatu egin beharko du aurrez emandako okupazio-epearen luzapena eta, edonola ere, aurreko artikuluan aipatutako dokumentuak zehaztu egin beharko ditu.

17. Artikulua: Fidantza ezartzea.

Obren ondorioz bide publikoa okupatzeko baimena eskatzen duenak dagokion fidantza ezarri beharko du bide publikoaren okupazioarekin hasi baino lehen.

Fidantzaren zenbatekoa bide publikoa okupatzeko baimenarekin batera jakinaraziko zaio. Fidantzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak Alkatearen Dekretuz finkatuko dira, Tokiko Gobernu Batzarraren proposamenari jarraituz.

Informazio hori, okupaziorako baldintzei buruzko informazioarekin batera, horretarako bulegoetan jaso ahal izango da, eta baita udalaren WEB-orrian ere.

Bide publikoaren okupaziorako baimena luzatuz gero, luzapen horrekin batera artikulua honetan jasotako fidantza aplikatuko da, fidantza-kopuruak % 50 gehituta.

OKUPAZIOEI DAGOZKIEN TASAK ETA PREZIOAK ORDAINTZEA

18. Artikulua: Okupazioaren ordainketa

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

Ordenantza honetan aipatzen diren elementuetako edozeinekin lurzoru publikoa okupatzeko baimenak berarekin dakar tasak ordaindu behar izatea –hain zuzen ere, "Udalerriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskal"ean ezarritakoak– eta ordenantza horretan bertan jasotako araubide fiskalari jarraitu behar izatea.

ZIGOR ARAUBIDEA

19. Artikulua: Lizentziarik gabeko okupazioak.

1.- Udal baimenik gabe egiten diren bide publikoaren edozein okupazioak udal agintariek kendu arazi edo/eta beraiek kendu ahal izango dituzte berehala eta kautelaz, eta baita dagokien biltegian utzi ere. Hori ez da eragozpen izango, hala ere, dagozkion zigorrak ezartzeko eta egindako okupazioari dagokion kitapena exijitzeko.

2. -Hemengo diziplina-ondorioetarako, udal-lizentziaren iraunaldia bukatutakoan edozein elementu ez kentzea udal baimenik ez izatearen parekotzat joko da.

20. Artikulua: Prozeduraren inguruko hainbat alderdi

Ordenantza honetan ezarritakoa bete ezean, dagokion zigor-espedientea irekiko da eta EAEko Herri Administrazioen zigortze-ahalmenari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoari jarraituz izapidetuko da espedientea.

Obra-baimenei lotutako lurzoruaren okupazioari dagokien arau-hausteei buruz, xedapen hauekiko arau-hausteen erantzuleztat hartuko dira ordenantza hau urratzea dakarren edozein jarduketa egiten duten pertsonak –fisikoak nahiz juridikoak, eta beraien izenean nahiz enpresa instalatzaileen ordezkari edo arduradun gisa–, edo hasieran aipatutako erantzuleek egindako jarduketetan, ordenantza bete behar dela aurreikustearen eta exijitzearen obligazioa betetzen ez dutenak.

Halere, dagokion zigor-prozedura izapidetu ondoren arduradunei zigorrak ezarriko bazaizkie ere, kalteak ordaintzeko obligazioak jarraitu egingo du arduradun izendatzen direnen kontura.

Ordenantza honetan agindutakoa ez betetzeagatik erantzukizunaren astungarritzat joko dira aurrez arau-urratzeak egin izana edota arau-urratze berdina egin izana

Alor honetako zigorrak jartzeko eskumena alkate-udalburuak izango du, edo hark eskuordetutako zinegotziak.

21. Artikulua: Arau-hausteak

Ordenantza honetan jasotakoa ez betetzearen ondorioetarako, honela sailkatu daitezke arau-hausteak: arinak, larriak eta oso larriak.

1. -Arau-hauste arintzat honako hauek joko dira:

- a. Baimendu gabeko elementuak jartzea, edo baimendutako azalera baino handiagoa okupatzea.

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

- b. Edozein instalazio baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.
- c. Bide publikoko beste edozein espazio okupatuetan produktuak, ontziak, hondakinak edo materiala biltegitzea edo pilatzea.
- d. Okupazio-eremua eskatzen den apaintasun, segurtasun eta garbitasun egoera egokian ez edukitzea, edo egunero ez garbitzea okupatutako eremua.
- e. Hutsegite arintzat honako hauek joko dira: Pertsonen segurtasunari eta ondasun publiko zein pribatuei kalterik eragin gabe, bide publikoaren gainean eragin arina dutenak (garbiketa-falta), eta bide publikoan duten eragin eskasarengatik hutsegite larrien edo oso larrien sailkapenean sartzen ez direnak.
- f. Ordenantza honetan aurreikusitako edo baimenarekin batera ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

2. -Arau-hauste larritzat honako hauek joko dira:

- a. Okupazioari ekitea edo instalazioak jartzea udal baimenik edo lizentziarik gabe.
- b. Ordenantza honen 13. artikuluan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea (okupatutako gune publikoaren konponketa).
- c. Baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatzea edo beste mugaketa-baldintza batzuk ez betetzea urtebete bateko epean bigarren aldiz egin dela egiaztatzen bada, Udaltzaingoari dagokion kontrolerako txostenean edo salaketa-idatzietan.
- d. Nahitaezko asegururik ez izatea.
- e. Ordenantza honi loturik dauden elementuak baldintzak bete gabe jartzea –araudi honetako baldintzak edo udalak zehaztutako edo ezarritako baldintza teknikoak edo bestelakoak–, beti ere oso larritzat jotzen ez badira.
- f. Instalazioak jartzea, egiturak, aldamiok eta bestelako lagungarriak jartzeko beharrezko lizentzia izan gabe.
- g. Udalak arau-hauste arinak zuzentzeko emandako aginduak ez betetzea.
- h. - Hutsegite arinak behin baino gehiagotan egitea. Hau da, urtebete batean bi arau-hauste edo gehiago egitea.
- i. Zigor espedienteari hasiera eman aurreko urtean, bi arau-hauste arin eginak izatea eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea.

3). -Arau-hauste oso larritzat honako hauek joko dira:

- a) Urtebeteko epean bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.
- b) Instalazioa berehala eteteko agindua ez betetzea
- c) Funtzionarioei edo agintaritza-agenteei begirunerik ez izatea, haien karguari hala dagokiolako esku hartzen dutenean, edo beren ikuskatze-lanak ukatzea edo oztopatzea.
- d) Arau-hauste larri bat egitea baldin eta arriskuan edo egoera larri batean jartzen baditu pertsonak edo ondasun publiko zein pribatuak.
- e) Udalak arau-hauste larriak zuzentzeko emandako aginduak ez betetzea.

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamiok eta gainontzeko ekipamendu eta materialak bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

Ordenantza honetan agindutakoa ez betetzeagatik arau-haustea sailkatzeko orduan, erantzukizunaren astungarritzat joko dira aurrez arau-urratzeak egin izana edota arau-urratze berdina egin izana.

22. Artikulua: Zigorrak.

1. -Ordenantza honetako arau-haustea direla-eta, eskala honen arabera ezarriko dira isunak:

a.- Hutsegite arinak:

- 100 eta 350 euro arteko isuna, eta/edo
- lizentzia baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udal agindua betetzen ez bada.

b.- Hutsegite larriak:

- 351 eta 1.000 euro arteko isuna, eta/edo
- lizentzia baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udal agindua betetzen ez bada.

c.- Hutsegite oso larriak:

- 1.001 eta 3.000 euro arteko isuna, eta/edo
- lizentzia baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udal agindua betetzen ez bada.

Isunaren zenbatekoa mailakatzeko orduan, aintzat hartuko da arau-haustea zein egunetan egin den eta zenbat egun mantendu den. Zigorra ezartzerakoan, egindakoak egoki neurtuko dira, era ponderatuan, ondoko irizpideen arabera:

- Nahita edota behin baino gehiagotan egin izana.
- Eragin diren kalteen izaera eta larritasun-maila.
- Urte batean izaera bereko arau-urratze bat baino gehiago egin izana.
- Arriskua egon izana, bide-segurtasunari eta/edo oinezkoen segurtasunari begira.

Arau-haustea larria edo oso larria bada, bide publikoan lizentziarik gabe jarritako elementuak berehala kentzeko agindua emango da eta, hori bete ezean, subsidiarioki kentzeko prozedurari ekingo zaio.

Horretaz guztiaz gain, jarritako elementuen egoera dela-eta beharrezkoa balitz, kautelazko neurri egokiak hartu ahal izango dira.

Zigor hauek Udal Agintariak ezarriko ditu, izandako inguruabarrak kontuan izanda, eta hargatik eragotzi gabe arau-haustea berarekin ekar ditzakeen erantzukizun penalak edo eman beharreko kalte-ordainak.

2.- Udal baimenik edo lizentziarik gabe egindako okupazioa gerora legeztatzen bada, eta arau-haustea berriz gertatu ez bada edo udalaren agindua(k) betetzeari uko egin ez bazaio, zigorra soilik ekonomikoa izatera murriztu daiteke.

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamiu eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

3.- Ordenantza honetan ezarritako zigorren zenbatekoak urtero eguneratu ahalko dira automatikoki, Estatuko Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera eta hura positiboa denean, betiere 2018tik aurrera aplikatuz. Eguneratzea Alkatearen dekretuz erabakiko da eta Udaleko Iragarki Taulan eta web-orrian argitaratuko da urte hasieran.

23. Artikulua: Zigor-espedientea.

Egokitako zigorrak ezartzeko, ezinbestekoa izango da aurrez dagokion espedientea bideratzea, eta espediente hori izapidetu beharko da otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera (2/1998 Legea: EAEko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa) edo indarrean legokeen araudiaren arabera.

24. Artikulua: Ordezko betearazpena (Exekuzio subsidiarioa).

1. Udalak agintzen badu bide publikoan jarritako elementuak kentzea edo okupatutako espazio publikoa hasierako egoerara bueltatzea edo konpontzea, eta instalazioaren arduradunak agindu hori betetzen ez badu horretarako emandako epean, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan Administrazioak elementuak kendu ahal izango du edo okupatutako gune publikoa berreskuratu edo jatorrizko egoerara bueltatu ahal izango du ordezko betearazpenaz (subsidiarioki); hori guztia 39/2015 Legeak 102. artikuluan xedatutakoari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

2. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera kendutako elementuak gehienez ere 3 hilabetez egongo dira biltegian. Epe hori bukatu eta interesdunak eraman ez baditu, udalak suntsitu, saldu edo laga ahal izango ditu eta jabeak ez du kalte-ordainetarako eskubiderik izango.

Xedapen gehigarria

Ordenantza honen aplikazioak eragindako interpretaziorako hutsuneak edo bertan jasotakoak osatzeko/egokitzeko premia egonez gero, horretarako eskumena Alkate-Presidenteari aitortzen zaio.

Bide hau erabilia hartutako erabakiek aplikazio orokorra izango dute eta argitaratu egingo dira Udaleko Iragarki Taulan eta udaleko web-orrian.

Azken xedapenak

1. - Ordenantza hau ondorioak izaten hasiko da bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost lanegunetara.

2. -Alkateari berariazko baimena ematen zaio lizentziak eman ahal izateko eta ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, betiere administrazio-prozedura erkideari buruzko legedian jasotako printzipioen arabera.


BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamiio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, orain onartzen den testuaren aurkakoak diren edo horrekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetu egingo dira.

I. ERANSKINA / Anexo I




1a

*** Udalak baimendutako kasuetan murriztu ahal izango da, salbuespen gisa, baina inoiz ez espaloia baino estuagoko zabalerara**

*** Se podrá reducir excepcionalmente cuando así lo autorice el ayuntamiento, pero en ningún caso podrá ser menor que la anchura de la acera**

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza



16

*** Udalak baimendutako kasuetan murriztu ahal izango da, salbuespen gisa, baina inoiz ez espaloia baino estuagoko zabalerara**


*** Se podrá reducir excepcionalmente cuando así lo autorice el ayuntamiento, pero en ningún caso podrá ser menor que la anchura de la acera**

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza



$S < 0.60 \text{ m}$: gune hori ezin da oinezkoen pasagune gisa erabili
 $S > 0.60 \text{ m}$: gune hori oinezkoen pasagune gisa erabil daiteke

Si $S < 0.60 \text{ m}$ espacio no util como paso peatonal
 Si $S > 0.60 \text{ m}$ espacio util como paso peatonal

2a

* Udalak baimendutako kasuetan murriztu ahal izango da, salbuespen gisa, baina inoiz ez espaloia baino estuagoko zabalerara


* Se podrá reducir excepcionalmente cuando así lo autorice el ayuntamiento, pero en ningún caso podrá ser menor que la anchura de la acera

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza



$S < 0.60 \text{ m}$: gune hori ezin da oinezkoen pasagune gisa erabili
 $S > 0.60 \text{ m}$: gune hori oinezkoen pasagune gisa erabil daiteke

Si $S < 0.60 \text{ m}$ espacio no util como paso peatonal
 Si $S > 0.60 \text{ m}$ espacio util como paso peatonal

26

* Udalak baimendutako kasuetan murriztu ahal izango da, salbuespen gisa, baina inoiz ez espaloia baino estuagoko zabalerara


* Se podrá reducir excepcionalmente cuando así lo autorice el ayuntamiento, pero en ningún caso podrá ser menor que la anchura de la acera

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza



S < 0.60 m: gune hori ezin da oinezkoen pasagune gisa erabili
S > 0.60 m: gune hori oinezkoen pasagune gisa erabil daiteke

Si S < 0.60 m espacio no util como paso peatonal
Si S > 0.60 m espacio util como paso peatonal

2c

*** Udalak baimendutako kasuetan murriztu ahal izango da, salbuespen gisa, baina inoiz ez espaloia baino estuagoko zabalerara**

*** Se podrá reducir excepcionalmente cuando así lo autorice el ayuntamiento, pero en ningún caso podrá ser menor que la anchura de la acera**

BERGARAKO UDALA


Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza



4

BERGARAKO UDALA

Obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia arautzeko udal ordenantza